



# Bronkiolitis akutua

Familiendako informazioa



## Sudurra garbitzea

Teknika honek sudurretik arnasketa hobeki hartzen laguntzen du, haurrak katarroa duenean.



pdf Dokumentua



- Materiala prestatzea: eskuoihala, 5 ml-ko xiringa eta gatz serum fisiologikoa.
  - Haurtxoa txikia bada (6 hilabetetik beherakoa), 2 ml serum sartuko diogu sudur hobi bakoitzean.
  - Haurra 2 urtekoa bada, 5 ml sartuko diogu sudur hobi bakoitzean.
- Haurra eroso jarriko dugu, eserita, bizkarra gure bularraren gainean duela, burua aurrerantz pixka bat makurtuta, eta eskuoihala erabiliko dugu adur zapi gisa.
  - Burua zut izaten laguntzen ahal diogu, gure ezkerreko eskua- ren hatz lodia eta erakuslea jarriz haren kokotsean.
- Xiringa leunki sartuko dugu sudur hobian, eta erabakitasunez bultzatuko dugu xiringaren enboloa, sudurraren mukiak herrestan eraman ditzan.
  - Ez da maniobra mingarria, baina litekeena da haurrak negar egitea.
- Haurrak kanpora bota dituen mukiak garbituko ditugu eskuoihalarekin.
- Aurreko urratsak errepikatiko ditugu, beste sudur hobia garbitzeko, haurrak arnasa arazorik gabe hartu dezan.
  - Teknika hau, hartualdi edo otordu bakoitzaren aurretik eta loadi bakoitzaren aurretik, erabil daiteke.